



GIZARTE LAGUNTZAILEA

BIGARREN ARIKETA

A) atala

Ariketa praktikoa

TRABAJADOR/A SOCIAL

SEGUNDO EJERCICIO

Apartado A)

Supuestos prácticos

Erref. - Ref.: OP2018/03

Atal honetan gehienez ere 15 puntu lortu ahal izango dira, eta gainditzeko gutxieneko puntuazioa 6 izango da.

Este apartado A) se valorará sobre un máximo de 15 puntos, siendo necesario obtener en su conjunto un mínimo de 6 puntos para superarlo.

EZ PASA ORRIA, PASATZEKO ESATEN DEN ARTE!!!

!!!NO VUELVA LA HOJA HASTA QUE SE LE INDIQUE!!!

Donostia, 2019-10-01

San Sebastián, 01-10-2019



Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



LEHEN KASU PRAKTIKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuan ari zara lanean.

Ondoko kasua kudeatu behar duzu, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuko gizarte langile batek jakinarazi dizuna:

Emakume alargun bat (Miren, 85 urte), bere seme ezkongabearekin (Eduardo, 50 urte) bizi da.

Mirenek oroimen galera batzuk ditu eta, horregatik, lehen mailako arretako mediku batek narriadura kognitiboa zuela diagnostikatu zuen; 2018. urtean 1. mailako mendekotasuna aitortu zitzaion (45 puntu).

Miren eta Eduardo Mirenen jabetzakoa den etxebizitza batean bizi dira. Etxea hirigunearen kanpoaldeko auzo batean dago. Etxeak igogailua du kalearen sestra beretik, baina etxebizitzaren barruko ateak estuak dira, eta bainugela bakarra dute, bainera duena.

Elkarbizitza unitate horren diru sarrera bakarrak Mirenen alargun pentsiokoak dira; izan ere, Eduardo iraupen luzeko langabezian dago eta ez du oinarrizko ikasketarik.

Une honetan, Miren ospitalean ingresatua dago, eroriko baten ondorioz haustura bat izan zuelako, eta errehabilitazioa behar du. Ospitaleko gizarte langileak Oinarrizko Gizarte Zerbitzuarekin harremanetan jarri, eta elkarbizitza unitate honen egoera jakinarazi dio.

Mirenek 9 egun daramatza ingresatuta, eta Eduardo egunero joaten zaio bisitan, dituen beharrei kasu egitera. Ez dute gertuko familiaren bestelako laguntzarik, beste alaba bat Madrilen bizi baita eta ama ospitalean dagoen bitartean ez baita bertara azaldu. Ospitalean aurreikusten dute 4 egun barru alta emango diotela baina mugikortasun arazoak izango dituela erorikoaren ondorioz.

Garatu kasu praktiko hau ondoko atal hauek kontuan hartuz: (7,5 puntu).

- a) **Arazo diren egoeren definizioa.** (0,5 puntu)
- b) **Diagnostikoa.** (2 puntu)
- c) **Arreta plana (planteatutako helburuak, teknikak, koordinazioa eta baliabideak / zerbitzuak).** (4 puntu)

Arrazoiak eta koherentzia. (1 puntu)

Balioetsiko dira zuzentasuna, egokitasuna, osotasuna eta zehaztasuna, eta kasu bakoitzari dagokion araudia aipatzea eta haren literaltasunaren arabera adieraztea, azalpen egokia, egituratua eta testuingurua emanaz.



BIGARREN KASU PRAKTIKOA

Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politiketako Departamentuan txosten bat jaso da Oinarrizko Gizarte Zerbitzutik: planteatzen dute Zerbitzu espezializatuak egoera honetan esku hartzea:

Elkarbizitza unitate bat dugu, bikote batek osatua: Anderrek (45 urte) eta Teresak (40 urte) osatzen dute unitatea. Bikoteak bi seme ditu: Mikel eta Paul, 12 eta 10 urtekoak, hurrenez hurren.

Bi adingabeek maiz joaten dira berandu eskolara, atzerapena zuritu gabe. Batzuetan zikinak joaten dira eskolara, egiten duen eguraldirako arropa desegokiarekin eta nekatu itxurarekin; azken hiruhilekoan asistentzia huts asko izan dituzte eskolan, gurasoek zuritu gabe, eta absentismo handi hori ikusita, eskolak hitzordua jarri die gurasoei.

Hitzordura Teresa bakarrik joan da, eta ez du arrazoi koherenterik eman semeen absentismoari buruz. Aita ez da hitzordura joan, eta Teresak ez du jakin horren arrazoirik ematen.

Familia ez dago auzoan ondo integratua eta harreman sozial gutxi ditu. Adingabeek ez dute parte hartzen kirol edo aisialdiko jarduera bakar batean ere, eta eskolatik kanpo ez dute beren adinkideekiko harremanik ere.

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek familiaren egoeraren balioespena egin dute eta maiz joan dira eskola irakasle taldearekin koordinatzera. Adierazi digute etxean genero indarkeriako egoera bat dagoela eta adingabeak arrisku egoeran daudela.

Garatu esku-hartze plan bat, eman beharreko urrats guztiak arrazoituta, atal hauek kontuan hartuz: (7,5 puntu)

- a) **Arazo diren egoeren definizioa.** (0,5 puntu)
- b) **Egoeraren diagnostikoa.** (1,5 puntu)
- c) **Esku-hartze plan profesionala (hipotesi batetik abiatuta).** (4,5 puntu)

HIPOTESI BAT PLANTEATU BEHAR DUZU, KASUAREN PROZESU OSOAN GARATU BEHAR DUZUN IBILBIDE PROFESIONALAREKIN BAT DATORRENA.

Arrazoiak eta koherentzia. (1 puntu)

Balioetsiko dira zuzentasuna, egokitasuna, osotasuna eta zehaztasuna, eta kasu bakoitzari dagokion araudia aipatzea eta haren literaltasunaren arabera adieraztea, azalpen egokia, egituratua eta testuingurua emanez.



PRIMER SUPUESTO PRÁCTICO

Desempeñas tu labor profesional en el Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Te encuentras ante el siguiente caso, que te notifica la trabajadora social del Servicio Social de Base:

Miren, mujer viuda de 85 años de edad, convive con Eduardo, su hijo soltero de 50 años.

Miren presenta algunas pérdidas de memoria y, por este motivo, fue diagnosticada por su médico de atención primaria con un inicio de deterioro cognitivo, y en el año 2018 obtuvo un grado 1 de dependencia (45 puntos).

Miren y Eduardo viven en un piso de propiedad de Miren. La vivienda se encuentra en un barrio situado a las afueras del núcleo urbano. La vivienda cuenta con ascensor a cota cero, pero las puertas interiores del domicilio familiar son estrechas y tienen un único baño con bañera.

Los ingresos económicos con los que cuenta esta unidad convivencial son los procedentes de la pensión de viudedad de Miren, porque Eduardo se encuentra en situación de desempleo de larga duración y carece de estudios básicos.

Miren se encuentra ingresada en el hospital por una caída, con necesidad de rehabilitación por alguna fractura, y la trabajadora social del hospital comunica a los Servicios Sociales de Base la situación de la unidad convivencial.

Miren lleva 9 días ingresada y su hijo Eduardo acude diariamente a visitar a su madre y atender las necesidades de la misma. No cuentan con más apoyo familiar cercano, porque la otra hija reside en Madrid y no ha acudido al hospital durante todo el ingreso. Se prevé que en 4 días se encuentre en situación de alta y con dificultades de movilidad por las consecuencias de la caída.

Desarrolla el caso práctico teniendo en cuenta los siguientes apartados: (7,5 puntos)

- a) **Definición de las situaciones problema.** (0,5 puntos)
- b) **Diagnóstico.** (2 puntos)
- c) **Plan de atención (objetivos, técnicas, coordinación y recursos – servicios planteados).** (4 puntos)

Argumentación y coherencia. (1 punto).

Se valorará el grado de corrección, adecuación, integridad y precisión, con indicación y expresión, en su caso, de la normativa correspondiente y ajustada a su literalidad, en una exposición apropiada y correctamente estructurada y contextualizada.



SEGUNDO SUPUESTO PRÁCTICO

En el Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa se recibe informe del Servicio Social de Base solicitando intervención por parte del Servicio Especializado en la siguiente situación:

Nos encontramos con una unidad de convivencia compuesta por una pareja Ander, de 45 años, y Teresa, de 40 años. La pareja tiene dos hijos varones, Mikel y Paul, de 12 y 10 años.

Los dos menores de edad suelen llegar tarde al centro escolar, sin justificación alguna del retraso. En ocasiones acuden sucios, con ropa poco adecuada a la climatología, con aspecto de cansados y llevan un trimestre con un elevado número de faltas de asistencia al centro, sin justificar por parte de sus progenitores, por lo que debido al alto nivel de absentismo el centro escolar ha citado a los progenitores.

A la cita solo acude Teresa que no ha dado una explicación coherente sobre la situación de absentismo de sus dos hijos. El padre no ha acudido a la entrevista y Teresa no ha sabido explicar los motivos de la ausencia del mismo.

Se trata de una familia poco integrada en el barrio y con escasas relaciones sociales. Los menores de edad no participan en ninguna actividad de deporte o tiempo libre y no se relacionan con iguales fuera del centro escolar.

Desde los Servicio Sociales de Base, que han realizado una valoración de la situación familiar y que acuden con frecuencia al centro escolar a coordinarse con el Equipo Educativo, nos notifican que existe una situación de violencia de género en el domicilio familiar y que los menores de edad se encuentran en una situación de riesgo.

Desarrolla un plan de intervención justificando cada uno de los pasos que vayas dando, teniendo en cuenta los siguientes puntos: (7,5 puntos)

- a) **Definición de las situaciones problema.** (0,5 puntos)
- b) **Diagnóstico de la situación.** (1,5 puntos)
- c) **Plan de intervención profesional (partiendo de una hipótesis).** (4,5 puntos)

DEBEN REALIZAR UNA HIPÓTESIS QUE ACOMPAÑE EL RECORRIDO PROFESIONAL QUE DESARROLLAN EN TODO EL PROCESO DEL CASO.

Argumentación y coherencia. (1 punto).

Se valorará el grado de corrección, adecuación, integridad y precisión, con indicación y expresión, en su caso, de la normativa correspondiente y ajustada a su literalidad, en una exposición apropiada y correctamente estructurada y contextualizada.